Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Praktika Odontologikoa Helduetan: Eskuliburu Osagarria

Egileak:
Daniel Gutiérrez Acero
Agurne Uribarri Etxebarria
Eneritz Bilbao Uriarte
Kristina Aizpuru Segurola

ISBN/ISSN: 978-84-9082-132-9

Liburu honek UPV/EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA

PRAKTIKA ODONTOLOGIKOA HELDUETAN: ESKULIBURU OSAGARRIA

Daniel Gutiérrez Acero Drea.

Eneritz Bilbao Uriarte

Agurne Uribarri Etxebarria

Kristina Aizpuru Segurola

AURKIBIDEA

Sarrera…….,..……4.or

1. Praktika Odontologikoa Helduetan ikasgaia……...…....….5. or.
2. Praktika Odontologikoa Helduetan ikasgaiko praktikak….....7. or
3. Tratamendu ondorenerako gomendioak…….....24. or
4. Bibliografia…….....…….53. or

SARRERA

Praktika Odontologikoa Helduetan ikasgaiko praktiken jomuga aurreko ikasturteetan zehar ikasitakoa eguneroko praktika odontologikoan egiten diren jarduera klinikoekin bateratzea da. Ikasgai hau ezinbestekoa da ikasitako kontzeptuak finkatzeko, praktikan jartzeko eta, horrenbestez, etorkizuneko lan-mundurako. Azken batean, lanbideko lehen pausoak irakasleen gainbegiradapean ematean datza.

Teoria eta praktika uztartzea lanbide guztietan da garrantzitsua, baina bereziki odontologian. Odontologo on baten xedea bere pazienteei zerbitzu, diagnosi eta tratamentu on bat ematea da. Ikasgai honetan, hori guztia praktikan jarri ahal izango du ikasleak. Paziente bakoitzaren beharrak aztertuko dira, informazio gehigarria emango zaio, eta tratamendu egokitu bat jarriko zaio eskuragarri. Behin horraino iritsiz gero, lan kliniko bikain bat gauzatzea izango da azken urratsa.

Aurreko urteetako ikasgai guztiak barneratzen ditu Praktika Odontologikoa Helduetan ikasgaiak. Patologia asko, zenbait azaleratze motarekin eta tratamendu posible askorekin. Ikasleek azaldu dituzten zailtasunen artean dago kontzeptu horiek guztiak kudeatzea eta antolatzea, ondorengoak baldintzatuko dituzten erabakiak hartu behar baitituzte momentuoro.

Ikasleek gida moduan erabil dezaketenez, praktika-eskuliburu batek erraztu dezake ikasketa-prozesua ikasgaiko urtean zehar. Halaber, ikasteko material lagungarria sortzea Europako goi-mailako hezkuntza-arduradunen eskakizun bat da (EEES).

1. Praktika Odontologikoa Helduetan ikasgaia

Praktika Odontologikoa Helduetan urte osoko ikasgai nagusietako bat da. Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Odontologia graduan, ezinbestekoetako bat da irakasgaien curriculumean, eta 9 kreditu ditu (ECTS).

Ikasleek, graduan zehar bildutako teoria eta praktika bere osotasunean bereganatzeaz gainera, tratamendu mota ezberdinak aplikatu ahal izango dituzte pazienteetan. Era honetan, arlo guztietan trebezia bermatuz joango dira. Edozein ahoko patologia edo behar odontologiko aztertzerakoan, tratamendu orokor bati aurre egin ahal izateko dohainak indartu nahi dira ikasgai honekin, hau da, odontologo baten eguneroko jardueretarako prestatu nahi dira ikasleak.

Graduko ikasketen bigarren zikloan zehar, ikasleak bere heziketa-prozesua borobildu beharko du jakintza teoriko eta praktikoak erabiliz eta ahoko, masail-baraileko eta ehun bigunetako patologien prebentzio-, diagnosi- eta tratamendu-ekintzetan parte hartuz.

1.1. HELBURU INSTITUZIONALAK

2003ko martxoaren 13an Espainiako Aldizkari Ofizialeko (BOE) 62. zenbakian argitaratutakoaren arabera, helburu hezitzaile zehatzak ezartzen ditu Odontologia graduaren titulu ofiziala eskuratzeko Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) duen ikasketa-planak.

Ikasgai honetako gida hezitzaileak dioenez, praktika aurreprofesionalez eta gaitasunen ebaluazioaz gainera, tarte bat bilatu behar zaie balio profesionalari, arrazoiketa klinikoari, gestio klinikoari eta erabakien aurrean kritikoa izateari.

1.2. HEZKUNTZA-METODOA ETA IKASGAIAREN GIDA

Lau atal nabarmenetan bereiziko da ikasgaia:

1.- HELDUEN HISTORIA KLINIKOA ETA MIAKETA
2.- DIAGNOSIA ETA PRONOSTIKOA HELDUETAN
3.- HELDUEN TRATAMENDUA OSOTASUNEAN
4.- PREBENTZIOA ETA AHO-HORTZ-HAGINEN OSASUNAREN MANTENUA

Paziente helduekin eginiko praktika klinikoek osatuko dute ikasgaia.

Pazienteekin eginiko praktikak: irakaslearen gainbegiradapean betiere, ikasleek pazienteak ikusiko dituzte binakako taldetan. Historia klinikoa bete eta egiturak miatu, diagnosia egin, pronostikoa eman eta oinarrizko patologiaren tratamendurako plana azalduko dizkiete UPV/EHUko Klinika Odontologikora datozen paziente helduei.

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Osakidetzak orain dela gutxi sinatu duten kontzertua dela medio, behar izanez gero, eskuragarri daude Osakidetzak ikerketarako eta unibertsitateko hezkuntzarako dituen hezkuntza-instalazioak (25/2008 Ebazpena, 2008ko abenduaren 10ean).

2. Praktika Odontologikoa Helduetan ikasgaiko praktikak

Ikasgai honetako praktika klinikoetako jardueren bidez, aho-hortzen osasuna mantentzeko behar diren neurriak ikasi eta kasu bakoitzari dagozkion prozedura odontologiko egokienak barneratuko ditugu.

2.1. ODONTOLOGIA KONTSERBADORERAKO PROTOKOLOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria gauzatu.
3. Diagnosia.
4. Tratamendurako plana gauzatu, eta zailtasunaren arabera bereiziko dira prozedurak. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Landu beharreko hortz-haginen erabateko isolamendua lortu gomazko dikea erabiliz.
7. Txantxarra kendu eta hutsunea egokitu.
8. % 35eko kontzentrazioa duen azido ortofosforikoaz baliatuz, hutsunea gauzatzen duten paretak grabatu 15 segundoz.
9. Itsasgarria zabaldu hutsunean, eta 15 segundoz fotopolimerizatu.
10. Konposite zatiak gehitu behar dira apurka, geruza bakoitza 40 segundoz fotopolimerizatuz.
11. Konpositeari akabera eman eta leundu.
12. Hortz-haginen herskuntza ebaluatu, eta betetzea doitu. Irakasleak onespena eman behar du lana amaitu baino lehen.
13. Beharrezkoa izanez gero, ondorenerako gomendioak eman.
14. Lana ikuskatu behar bada, txanda eman.

2.2 PROZEDURA KLINIKOA ENDODONTZIAN

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria gauzatu.
3. Diagnosia.
4. Tratamendurako plana gauzatu, eta prozedurak zailtasunaren arabera bereizi. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
5. Pazientearen adostasuna bermatu
6. Tratamendu endodontikoa. Hutsunea ireki diamantezko fresa biribilarekin hasiz. Jarraitu abiadura txikiagoan kontra-angeluko fresarekin, muina agerian utzi arte. EndoZ fresa erabili lana fintzeko.
7. Muin kanalak aurkitu DG16 sondaren bitartez.
8. Landu beharreko hortz-haginen erabateko isolatzea lortu gomazko dikea erabiliz.
9. 10eko lima bat hartu, eta ireki bidea xumeki, muinen kanaletan barrena.
10. Landu beharreko muin-kanalen luzera zehaztu erpin bilatzaileaz baliatuz. 10eko edo 15eko lima bat neurri horretara duzularik, erradiografia bat egin. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
11. 35eko limara arte zabaldu konduktu zuzenak, eta 25eko limara arte, bihurguneak dituztenak.
12. Errotazio bidezko instrumentazioa egin behar da muin-kanalen sarrerako bi herenetan. Lima lodiago bat pasatzen den bakoitzean 10eko lima zehaztutako neurrira iristen dela frogatu beharko da.
13. Landu beharreko konduktuen luzera zehaztu erpin-bilatzailea erabiliz.
14. Lima gidaria zein den erabaki (LAM).
15. “Step back” teknika erabiliz, lima lodiagoekin jarraitu, erabakitako luzerara **iritsi gabe.**

16. Lima gidariaren neurriko gutapertxa eta gutapertxa osagarri bat sartu muin kanalean, eta erradiografia bat egin, akatsik eza bermatzeko. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
17. Gutapertxa zementuarekin busti, eta hodiaren pareten kontra trinkotu. Gutapertxa osagarriak gehitu beharko dira, muin-kanalak bete eta gutapertxa guztiz kondentsatu arte. Erradiografia bat atera eta irakaslearen onespena bilatu.
18. Sobera dagoen gutapertxa moztu, eta geratzen dena trinkotu.
19. Zementu-hondarrak garbitu alkoholarekin.
20. Kotoizko bolatxo bat ipini, eta behin- behineko betetzea jarri.
21. Beharrezkoa izanez gero, ondorenerako gomendioak eman.
22. Behin betiko betetzea jartzeko txanda eman.

2.3 BERNO KOLATUAK EGITEKO PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria gauzatu.
3. Diagnosia. Tratamendu endodontikoaren ebaluazioa.
4. Tratamendurako plana gauzatu. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Pin kaltzinatua, silikona eta azpilak inguratu, hortzaren aztarna hartu ahal izateko.
7. Bigarren eta hirugarren Pesso fresekin, kanal-muinaren sarrerako bi herenak landu behar dira. Utzi beti gutxienez 4 mm gutapertxa erpinaldeko herenean.
8. Erradiografia bat atera gutapertxa-hondarra ikusteko eta bernoa norabide egokian sartuta dagoeta ikusteko. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
9. Adizio-silikonarekin hartu behar da hortzen aztarna. Komeni da silikona lentuloarekin sartzea muin-kanalean. Irakasleak ontzat eman beharko du emaitza. Laborategian gauzatuko da burdinurtuzko bernoa.
10. Kotoizko bolatxo bat ipini, eta iraupen luzeko behin-behineko betetzea jarri hortz-haginean.
11. Bernoa jartzeko garaian, tapakia kendu eta alkoholarekin garbitu zementu-arrastoak.
12. Bernoa zementatu. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da.
13. Soberakina garbitu.
14. Protesi finkorako prozedura klinikoa betetzen jarraitu.

2.4 ZUTOIN PREFABRIKATUEN PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria gauzatu.
3. Diagnosia. Tratamendu endodontikoaren ebaluazioa.
4. Tratamendurako plana gauzatu. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Sistema bakoitzak bere zulagailua izango duenez, muin-kanalen sarrerako bi herenak landu beharko dira, erabili behar dugun zutoinari dagokionarekin. Utzi beti gutxienez 4 mm gutapertxa erpinaldeko herenean.
7. Erradiografia bat atera gutapertxa-hondarra ikusteko eta bernoa norabide egokian sartu dela ikusteko. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
8. Zutoina luzera egokian moztu, hau da, behin hortz-haginaren amaierako altuera erabaki ondoren, zutoina konduktuan sartu, eta 2 mm gutxiagora moztu.
9. Garbitu hortz-hagina alkoholarekin.
10. Fabrikatzailearen arauei jarraituz zementatu zutoina. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
11. Lehenengo protokoloan azaldutakoa eredu gisa erabiliz, konpositearekin amaitu betetzea. Irakasleak onespena eman behar du lana amaitu baino lehen.
12. Ondorenerako gomendioak eman pazienteari, eta lanaren jarraipena egin beharko dela azaldu.
13. Aldizkako bisitak antolatzeko argibideak eman.

2.5 HORTZ-HAGINAK ETXEAN ZURITZEKO PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria gauzatu.
3. Diagnosia.
4. Tratamendurako plana gauzatu eta materiala aukeratu. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Hortz-haginen aztarna hartu behar da alginatoarekin, zuriketarako ferula bigunak prestatzeko.
7. Igeltsuzko ereduak lortu eta ferulak zuritzaile-gordailua izatea nahi izanez gero, laborategikoei eskatu.
8. Hortz-haginen kolorea aurrez hartu behar da VITA gida erabiliz, eta argazkia atera.
9. Pazienteari materiala eta argibideak eman.
10. Astero berrikusiko dugu pazientea, kolore-aldaketa neurtzeko.
11. Tratamendua amaitzen denean, kolorea berriro hartu, emaitza neurtzeko, eta argazkiak atera.
12. Ondorenerako gomendioak eman pazienteari eta jarraipena egin beharko zaiola azaldu.
13. Aldizkako bisitak antolatzeko argibideak eman.

2.6 HORTZ-HAGINAK ATERATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria gauzatu.
3. Diagnosia.
4. Tratamendurako plana gauzatu, eta prozedurak zailtasunaren arabera bereizi. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Lotailu periodontala haustea lortu.
7. Hortz-haginaren luxazioa eragin.
8. Hortz-haginari tiratu albeolotik atera dadin.
9. Komeni baldin bada, analisi anatomopatologikoa eskatu.
10. Ondorenerako argibideak eman pazienteari eta kasu bakoitzean beharrezkoa den tratamendu farmakologikoa ezarri.
11. Pazienteak behar baldin badu, jarraipena egin.

2.7 PROZEDURA KLINIKOAK PERIODONTZIAN

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria gauzatu. Erradiografia-segida bat egin beharko da.
3. Diagnosia.
4. Tratamendurako plana gauzatu eta prozedurak zailtasunaren arabera bereizi. Irakaslearen gainbegiradapean egingo da beti.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Oinarrizko tratamendu periodontala. Koadrantez koadrante sustraiak arraspatzeaz eta berdintzeaz gainera, agerian dauden sustrai zatiak leundu beharko dira.
7. Ahoko garbitasuna mantentzeko argibideak eman.
8. Jarraipen zorrotza egin.
9. Pazienteak tratamendu sakonago bat beharko balu, beste plan bat gauzatu.
10. Tratamendu kirurgikoaren beharra ebaluatu.
11. Jarraipena egin.
12. Mantenu periodontala ziurtatzeko neurriak hartu, ondorenerako argibideak eman pazienteari, eta aldizkako bisitak antolatu.

2.8 PROTESI KENGARRIRAKO PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho inguruko egituren miaketa erradiologiko osagarria (ortopantomografia) eta proba osagarriak egin.
3. Tratamendurako plana gauzatu, irakaslearen gainbegiradapean.
4. Pazientearen adostasuna bermatu.
5. Hortz-haginen lehenengo aztarna hartu, alginatoarekin. Hegal gingibal irregularrak aurreikusten baldin badira, eskatu neurrira eginiko azpila laborategikoei, aztarna zehatzago bat lortzeko.
6. Hortz-haginen behin betiko aztarna hartu, lanerako ereduak lortzeko. Haien gainean, hurrengo pausorako behar ditugun plantxa eta argizari zatia prestatu behar dira.
7. Masailezurreko argizari zatiarekin, datu hauek erregistratuko dira:
    a. Goiko ezpainak geldi-egonean duen posizioa.
    b. Irribarrearen lerroa.
    c. Aurpegia bitan banatzen duen lerroaren erregistroa.
    d. Letaginen lerroa.
    e. Oklusio-planoaren erregistroa.

8. Aupegi-arkua hartu, eta masailezurraren eredua muntatu artikulagailuan.
9. Erabaki nahi dugun masailezurraren eta barailaren arteko erlazioa erregistratzeko aukeratzen dugun teknika erabili, eta barailaren eredua muntatu artikulagailuan.
10. Kolorea erabaki.
11. Hortzen proba eskatu, eta honako hauek aztertu:
    a. Faktore estetiko eta funtzionalak ebaluatu eta ahoskatze-probak gauzatu.

    b. Kasuan kasukoa egokitu.
    c. Oklusioa begiratu, eta doitu, behar baldin bada.

12. Amaitutako protesien proba eta ebaluazioa. Oklusioa doitu, behar izanez gero.

13. Ondorenerako argibideak eman pazienteari, eta jarraipena egin.

14. Aldizkako bisitak antolatu.

2.9 PROTESI FINKORAKO PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologikoa eta proba osagarriak gauzatu.
    a. Hortz-haginen ebaluazioa endondontziari eta periodontziari dagokienez.
    b. Protesiari dagokionez:
        I. Oinarrizko pilare kopurua eta haien kokapena.
        II. Sustraien forma.
        III. Protesiarentzat behar den tartea.
        IV. Indarren eta oklusioaren analisia.
3. Tratamendurako plana gauzatu, irakaslearen gainbegiradapean.
4. Pazientearen adostasuna bermatu.
5. Lehenengo hortz-haginen aztarnak, alginatoarekin. Azterketarako igeltsuzko ereduak. Arikulagailuan muntatu.
6. Hortz- haginen pilareak aukeratu. Protesia diseinatu.
7. Erretxinazko simulazioa, behar izanez gero (Mock up).
8. Hortz-haginen pilareak prestatu.
9. Hortz-haginen behin betiko aztarna hartu, lanerako eredu bat lortzeko, hortz-oia atzeratuko duen hari bat jarriz.
10. Aurpegi-arkua erabiliz, erlazio kraneomaxilarraren transferentzia egin artikulagailuara.
11. Masailezurraren eta barailaren arteko erregistroa, barailaren eredua artikulagailuan muntatzeko. Gailur arteko kontaktu gehienen posizioan edo erlazio zentrikoan.
12. Masailezurraren eta barailaren arteko erlazioaren erregistroa hartu.
13. Kolorea hartu.
14. Behin-behineko protesia jarri. Klinikan edota laborategian egina.
15. Metalaren proba, behin-behineko protesia kenduz (ahokatu, egonkortu, marjinak, oklusio tartea).
16. “Bizkotxo”aren proba:

a. Faktore estetikoen eta oklusioaren azterketa eta doiketa, komeni bada.
b. Kasuan kasukoa pertsonalizatu.

17. Protesia bukatzera bidali.
18. Protesia zementatu eta oklusioa begiratu. Azken doikuntzak egin, beharrezkoak baldin badira.
19. Ondorenerako argibideak eman pazienteari, eta jarraipena egin.
20. Aldizkako bisitak antolatu.

2.10 PROTESI MISTORAKO PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologikoa eta proba osagarriak gauzatu.
    a. Hortz-haginen ebaluazioa endondontziari eta periodontziari dagokienez.
    b. Protesiari dagokionez:
        I. Oinarrizko pilare kopurua eta haien kokapena.
        II. Sustraien forma.
        III. Protesirako behar den tartea.
        IV. Indarren analisia eta oklusioa.
3. Tratamendurako plana gauzatu, irakaslearen gainbegiradapean.
4. Pazientearen adostasuna bermatu.
5. Lehenengo hortz-haginen aztarnak, alginatoarekin. Igeltsuzko ereduak, estudiorako. Muntaketa artikulagailuan.
6. Hortz-hagin pilareak eta ainguratze-sistema aukeratu. Protesiaren diseinua gauzatu.
7. Erretxinazko simulazioa gauzatu, behar baldin bada (Mock up).
8. Behin-behineko protesia aurrez prestatu.
9. Hortz-hagin pilareak prestatu.
10. Hortz-haginen behin betiko aztarna hartu, lanerako eredua lortzeko. Haren gainean ondorengo erregistroak hartzeko erabiliko dugun plantxa eta argizari zatia eskatu, komeni baldin bada.
11. Masailaren ereduaren transferentzia egin aurpegi-arkua erabiliz. Okluzio erlazioa aukeratu, eta dagokion erregistroa hartu.
12. Kolorea erabaki.
13. Behin-behineko protesia ezarri.
14. Metalaren proba, behin-behineko protesia kenduz (ahokadura, egonkortasuna, marjinak, oklusio-tartea).

15. “Bizkotxo”aren proba:
    a. Faktore estetikoak eta oklusioa aztertu eta doitu, komeni bada.
    b. Kasuan kasukoa egokitu.
    c. Protesia bukatzera bidali.
16. Behin-behineko protesia kendu, eta behin betikoa zementatu. Aldi berean, protesi kengarria kokatu eta oklusioa begiratu. Azken doikuntzak egin, komeni baldin bada.
17. Ondorenerako argibideak eman pazienteari, eta jarraipena egin.
18. Aldizkako bisitak antolatu.

2.11 INPLANTEEN GAINEKO PROTESIRAKO PROZEDURA KLINIKOA

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologikoa eta proba osagarriak gauzatu.
   a. Hortz-haginen ebaluazioa endondontziari eta periodontziari dagokienez.
   b. Protesiari dagokionez:
      I. Inplante kopurua eta haien kokapena.
      II. Protesirako beharrezkoa den tartea aztertu.
      III. Indarren analisia eta oklusioa ebaluatu.
      IV. Pazientearen ezaugarri anatomikoen analisia egin.
3. Lehenengo hortz-haginen aztarnak, alginatoarekin. Igeltsuzko eredua, azterketarako. Muntaketa artikulagailuan. Argizarizko simulazioa gauzatu, behar baldin bada.
4. Tratamendurako plana gauzatu, irakaslearen gainbegiradapean.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Inplanteak jarri.
7. Protesiaren diseinua gauzatu. Inplanteetarako pilareak hautatu .
8. Behin-behineko protesiak prestatu, komeni baldin bada.
9. Banakako kubeta/azpila zulatua behar bada, hortz-haginen aztarna hartu.
10. Hortz-haginen behin betiko aztarna hartu, lanerako eredua lortzeko.
11. Oklusioa erabaki, eta artikulagailuan muntaketa egiteko erregistroak hartu.
12. Kolorea erabaki.
13. Metalaren proba (ahokadura, egonkortasuna, marjinak, oklusio-tartea).
14. “Bizkotxo”aren proba:
    a) Faktore estetikoak eta oklusioa aztertu eta doitu, komeni bada.
    b) Kasuan kasukoa egokitu.

15. Protesiari bukatzera bidali.
16. Behin betiko protesia jarri eta oklusioa begiratu. Azken ukituak eman, komeni bada.
17. Ondorenerako argibideak eman pazienteari, eta jarraipena egin.
18. Aldizkako bisitak antolatu.

2.12 OKLUSIO DESPROGRAMATZAILE BAT EGITEKO PROZEDURA KLINIKOA (DESKARGARAKO FERULA)

1. Historia klinikoa bete, eta aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa zehatza egin.
2. Aho barruko eta aho inguruko egituren miaketa erradiologikoa eta proba osagarriak gauzatu.
3. Diagnosia.
4. Tratamendurako plana gauzatu, irakaslearen gainbegiradapean.
5. Pazientearen adostasuna bermatu.
6. Hortz-haginen aztarna, alginatoarekin.
7. Aurpegi-arkuaren bitartez masailaren eredua muntatu artikulagailuan.
8. Erregistroaren bitartez barailaren eredua muntatu.
9. Ferula eskatu laborategian. Zer nahi dugun adierazi behar da: ferularen azalera laua izatea ala posizio finkoaren aztarna izatea.
10. Artikulagailuan egiaztatu oklusio-puntuak, erlazio zentrikoan eta zentruz kanpoko mugimenduetan.
11. Ahoan egiaztatu oklusio-puntuak erlazio zentrikoan eta zentruz kanpoko mugimenduetan.
12. Ondorenerako argibideak eman pazienteari, eta jarraipena egin.
13. Jarraipena egin denboran zehar, oklusio-puntuak egonkorrak direla ikusi arte. Behin hori lortuta, aldizkako bisitak antolatu.

3. Tratamendu ondorenerako gomendioak

3.1 BETE-LANA EGIN ONDORENERAKO ARGIBIDEAK ETA ZAINTZA-GOMENDIOAK

.....(izena): bete-lan bat egin berri dizugu. Saia zaitez deskantsua hartzen eta ez egin jarduera bizirik gaurko egunean zehar.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Molestiaren bat izan dezakezu estimulu termikoen aurrean batik bat; normalean, estimuluak dirauen bitartean soilik. Molestia horiek pixkanaka desagertzen joan beharko lukete.
2. Deserosotasun hauek aldegiten ez badute edota okerragora baldin badoaz, baliteke ondorioak izatea hortz-haginaren muinean. Deitu kontsultara. Baliteke beste tratamenduren bat behar izatea.
3. Hozka egiterakoan ere suma dezakezu deserosotasuna. Itxoin 2-3 egun. Hobera ez baldin badoa, deitu kontsultara, dena ondo dagoela egiazta dezagun.

3.2 TRATAMENDU ENDODONTIKOA EGIN ONDORENERAKO ARGIBIDEAK ETA ZAINTZA-GOMENDIOAK

.....(izena): Tratamendu endodontiko bat egin berri dizugu. Saia zaitez deskantsua hartzen eta ez egin jarduera bizirik gaurko egunean zehar.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Anestesiaren efektua bukatzean, baliteke egun batzuetan mina izatea, hortz-haginari eusten dioten hezurra eta lotailua inflamaturik egon baitaitezke. Molestia horrek pixkanaka desagertzen joan beharko luke.
2. Deserosotasun hori desberdina izan daiteke kasu bakoitzean. Normalean, murtxikatze-prozesuan antzematen zaio gehien, eta agindutako tratamendu farmakologikoarekin kontrolatu ohi da.
3. Kasu batzuetan, min handiagoa edo zornea azaldu daitezke. Agindutako tratamendu farmakologikoarekin jarraitu. Mina desagertzen ez bada edota okerragora baldin badoa, deitu kontsultara; baliteke beste tratamenduren bat behar izatea.

B.- Zer egin:

1. Saia zaitez tratatu dugun hortz-haginaren aldearekin ez murtxikatzen, behin behineko betetzea duzun bitartean.
2. Behin-behineko betetzea erortzen baldin bazaizu, deituiguzu, eta berria ipiniko dizugu. Garrantzitsua da hortz-hagina estalita egotea, kutsa ez dadin.
3. Ez utzi denbora asko tratamendua bukatu gabe. Era horretan, hortz-hagina ezustean hausteko aukerak gutxituko dira.

3.3 BIRTRATAMENDU ENDODONTIKOA EGIN ONDORENERAKO ARGIBIDEAK ETA ZAINTZA-GOMENDIOAK

……(izena): Birtratamendu endodontiko bat egin berri dizugu. Saia zaitez deskantsua hartzen eta ekidin itzatzu jarduera biziak gaurgo egunean zehar.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Anestesiaren efektua bukatzean, baliteke mina izatea egun batzuetan, hortz-haginari eusten dioten hezurra eta lotailua inflamaturik egon baitaitezke. Molestia horrek pixkanaka desagertzen joan beharko luke.
2. Deserosotasun hori desberdina izan daiteke kasu bakoitzean. Normalean, murtxikatze-prozesuan antzematen zaio gehien. Agindutako tratamendu farmakologikoarekin kontrolatu ohi da.
3. Kasu batzuetan, min handiagoa edo zornea azaldu daitezke. Agindutako tratamendu farmakologikoarekin jarraitu. Mina desagertzen ez bada edota okerragora baldin badoa, deitu kontsultara; baliteke beste tratamenduren bat behar izatea.

B.- Zer egin:

1. Saia zaitez tratatu dugun hortz-haginaren aldearekin ez murtxikatzen, behin-behineko betetzea duzun bitartean.
2. Behin-behineko betetzea erortzen baldin bazaizu, deituiguzu, eta berria ipiniko dizugu. Garrantzitsua da hortz- hagina estalita egotea, kutsa ez dadin.
3. Ez utzi denbora asko tratamendua bukatu gabe. Era horretan, hortz-hagina ezustean hausteko aukerak gutxituko dira.

3.4 HORTZ-HAGINAK ATERA ONDORENERAKO ARGIBIDEAK ETA ZAINTZA-GOMENDIOAK

……..(izena):

Hortz- hagin bat atera berri dizugu. Zauri ireki bat geratu zaizu ahoan, eta baliteke hantura-erreakzioren bat eragitea, egoera bakoitzaren arabera. Zauria ondo senda dadin eta deserosotasuna gutxitzeko, beharrezkoa da argibide erraz batzuei jarraitzea.

A.- Zer egin:

1. Gasari eutsi behar diozu zauriaren gainean, presioa eginez, 30 minutuz gutxienez.
2. Gasa kentzean odolez zikindua badago, ipin ezazu beste bat. Odola gelditu bitartean, errepikatu prozedura, behar den guztietan.
3. Odol-jarioa kontrolpean izateko, saia zaitez ahoa kolutorioekin ez garbitzen lehen 24 orduetan.
4. Janari epel edo hotzak jan ahal izango dituzu gasa kendu ostean. Edari freskoek efektu analgesikoa eta antiinflamatorioa izango dute. Janari beroek, aldiz, odol-jarioa eragin dezakete.
5. Minez baldin bazaude, har ezazu analgesiko bat.
6. Lehen 24 orduak pasatzen direnenean, has zaitez jatordu ondorenetan ahoa garbitzen, ura eta gatzarekin edo klorhexidina duen kolutorio batekin, 7-10 egunez.
7. Ondoren, hasi kontuz-kontuz eskuilarekin hortzak garbitzen. Komeni da eskuil kirurgiko bat erabiltzea zauria duzun lekuan.
8. Ohiko medikazioa hartzen jarraitu ahal izango duzu, arazorik gabe. Antikoagulanteak hartzen ari baldin bazara, kardiologoarekin kontsultatu beharko duzu.
9. Edozein zalantza izango bazenu, galdetu iezaguzu.

B.- Zer EZ den egin behar:

1. Ez hartu aspirinarik, ez eta azido azetilsalizilikoa duen beste botikarik ere (adibidez, Couldina ®).
2. Odol-jarioa kontrolpean izateko, saiatu ahoa likidoekin ez garbitzen egunean bertan eta listua indarrez ez botatzen.
3. Ez egin jarduera bizirik gaurko egunean zehar, odol-jarioa eragin baitezakete.
4. Ez erre, aho barruko tenperatura beroek odol-jarioa eta infekzioa eragin ditzakete eta.

3.5 HORTZ- HAGINAK KIRURGIA ERABILIZ ATERA ONDORENERAKO ARGIBIDEAK ETA ZAINTZA-GOMENDIOAK

…….(izena): hortz-hagin bat atera berri dizugu kirurgia bitartez. Zauri ireki bat geratu zaizu ahoan, eta baliteke hantura-erreakzioren bat eragitea, egoera bakoitzaren arabera. Zauriak infektatzeko arriskua dauka; beraz, ondo sendatzeko eta deserosotasuna gutxitzeko, beharrezkoa da argibide erraz batzuei jarraitzea.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Lehenengo egunetan, ingurua minberatua eta haunditua izango duzu seguruenik. Mina kirurgia-puntutik gertu dauden egituretara ere zabaldu daiteke; eztarrira edo belarrira, adibidez.
2. Lehenengo egunetan ubeldurak ager daitezke, eta baliteke ahoa ondo zabaldu ezin izatea.
3. Hirugarren edo laugarren egunerako, sIntoma horiek desagertzen hasi behar lukete. Hala ez bada, deituiguzu; baliteke beste tratamenduren bat behar izatea.

B.- Zer egin:

1. Gasari eutsi behar diozu zauriaren gainean, presioa eginez, 30 minutuz gutxienez.
2. Gasa kentzean odolez zikindua badago, ipin ezazu beste bat. Odola gelditu bitartean, errepikatu prozedura, behar den guztietan.
3. Anestesiaren efektua bukatzean mina izango duzunez, har ezazu analgesiko bat (Nolotil ®, Gelocatil ®, Algiasdin ®, etab). Normalean, tratamendu analgesikoa gomendatu ohi da

lehen 2-3 egunetan, 6-8 ordutik behin. Minik ez baldin baduzu ez daukazu hartu beharrik.

4. Odol-jarioa kontrolpean izateko, saia zaitez ahoa kolutorioekin ez garbitzen lehen 24 orduetan.
5. Janari epel edo hotzak jan ahal izango dituzu gasa kendu ostean. Edari freskoek efektu analgesikoa eta antiinflamatorioa izango dute. Janari beroek, aldiz, odol-jarioa eragin dezakete.
6. Saiatu eserita egoten, etzanda beharrean. Etzan nahi baldin baduzu, jar ezazu buruko lodi bat buru azpian.
7. Hantura kontrolatzeko, jar ezazu aurpegian izotz-poltsa bat, zapi batean bilduta, kirurgia gauzatu den puntuaren parean. 2-3 minutuz, 20 minutuan behin. Lehen orduetan batik bat.
8. Lehen 24 orduak pasatzen direnenean, has zaitez jatordu ondorenetan ahoa garbitzen, ura eta gatzarekin edo klorhexidina duen kolutorio batekin, 7-10 egunez.
9. Gero, hasi kontuz-kontuz eskuilarekin hortzak garbitzen. Komeni da eskuil kirurgiko bat erabiltzea zauria duzun lekuan.
10. Ohiko medikazioa hartzen jarraitu ahal izango duzu, arazorik gabe. Antikoagulanteak hartzen ari baldin bazara, kardiologoarekin kontsultatu beharko duzu.
11. Dentistak emandako botikak zuzen hartu beharko dituzu dena kontrolpean edukitzeko.
12. Edozein zalantza izango bazenu, galdetu iezaguzu.

C.- Zer EZ den egin behar:

1. Ez hartu aspirinarik, ez eta azido azetilsalizilikoa duen beste botikarik ere (adibidez, Couldina ®).
2. Odol-jarioa kontrolpean izateko, saiatu ahoa likidoekin ez garbitzen egunean bertan eta listua indarrez ez botatzen.
3. Ez egin jarduera bizirik gaurko egunean zehar, odol-jarioa eragin baitezakete.
4. Ez erre, aho barrruko tenperatura beroek odoljarioa eragin eta infekzioa ekar dezakete eta.

HORTZ- HAGINAK ATERA ONDORENERAKO ERREZETA

IZENA…….

Analgesikoa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Antiinflamatorioa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Antibiotikoa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Babes gastrikoa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Kolutorioa:

Garbitu ahoa minutu batez jatorduen ondoren.

Beste gomendio batzuk:

……

3.6 TRATAMENDU PERIODONTAL ARRUNTA EGIN ONDORENERAKO ARGIBIDEAK ETA ZAINTZA-GOMENDIOAK

.....(izena): tratamendu periodontal arrunt bat egin berri dizugu. Saia zaitez deskantsua hartzen eta ekidin itzatzu jarduera biziak gaurko egunean zehar.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Anestesiaren efektua bukatzean, baliteke mina izatea egun gutxi batzuetan, inflamaturik egon baitaitezke hortz-haginari eusten dioten hezurra, lotailua eta hortz-oia. Eragozpen horrek pixkanaka desagertzen hasi beharko luke.
2. Deserosotasun hori desberdina izan daiteke kasu bakoitzean. Normalean, murtxikatze-prozesuan antzematen zaio gehien. Agindutako tratamendu farmakologikoarekin kontrolatu ohi da.
3. Estimulu termikoak deserosoak izatea normala da lehen egunetan. Sentsibilitatea desagertzen ez bada edota okerragora baldin badoa, deitu kontsultara; baliteke beste tratamenduren bat behar izatea.

B.- Zer egin:

1. Komeni da janari eta edariak epelak izatea.
2. Hantura kontrolatzeko, jar ezazu izotz-poltsa bat aurpegian, zapi batean bilduta, lana gauzatu den puntuaren parean. 2-3 minutuz, 20 minutuan behin. Lehen orduetan batik bat.
3. Has zaitez klorhexidina duen kolutorio batekin ahoa garbitzen jatordu ondorenetan. Esango dizugu noiz arte.

4. Ohiko medikazioa hartzen jarraitu ahal izango duzu, arazorik gabe. Antikoagulanteak hartzen ari baldin bazara, kardiologoarekin kontsultatu beharko duzu.

5. Dentistak emandako botikak zuzen hartu beharko dituzu dena kontrolpean edukitzeko.
6. Edozein zalantza izango bazenu, galdetu iezaguzu.

C.- Zer EZ den egin behar:

1. Ez erre.

TRATAMENDU PERIODONTAL ARRUNTAREN ONDORENERAKO ERREZETA

IZENA…….

Analgesikoa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Antiinflamatorioa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Antibiotikoa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Babes gastrikoa:

……konprimitu……orduan behin…….egunetan.

Kolutorioa:

Garbitu ahoa minutu batez jatordu ondorenetan.

Beste gomendio batzuk:

……

3.7 PROTESI KENGARRI OSOAREN MANTENURAKO ARGIBIDE ETA GOMENDIOAK

……..(izena):
protesi kengarri bat egin berri zaizu.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Gorputz arrotz bat izan daiteke hasieran. Normalean, aste batzuen buruan desagertzen da sentsazio hori.
2. Lehen asteetan, listua sortzea estimulatu dezake. Pixkanaka, normaltasunera itzuli ohi da berriro.
3. Dastamena mugatu dezake, batik bat lehenengo asteetan.
4. Arraro senti zaitezke hitz egiterakoan. Hasieran, arazoak izango dituzu hots batzuk ahoskatzerakoan, eta entrenamendua beharko duzu.
5. Lehen asteetan, masailei eta mihiari hozka egingo diezu seguruenik, egituren espazio-banaketa aldatu egin baita. Arazorik gabe ohituko zara.
6. Gehienetan, protesiak hortz-oia minberatzen du zenbait puntutan, batik bat ertzen inguruan. Mina desagertzen ez bada edo gehiagora baldin badoa, deituiguzu. Seguruenik, protesia doitu egin beharko da oraindik.
7. Hasieran, jatean, protesia asko mugitzen dela irudituko zaizu beharbada. Bi aldeekin batera jaten ikasi beharko duzu, hortz naturalekin ez bezala. Hori eginez eta oklusioa doituz, erosoago sentituko zara. Bestalde, tamalez, barailaren gainean doan protesia ezin izaten da ondo heldu sarritan.

B.- Zer egin:

1. Lehenengo egunetan, saia zaitez kontuz murtxikatzen, masailean eta mihian hozka egitea ekiditeko eta hortz-oia ez gehiegi minberatzeko.
2. Arrazoi bera dela eta, saia zaitez hasieran janari bigunak hartzen. Apurka-apurka hasiko zara jaki gogorragoekin.
3. Gogoratu bi aldeekin murtxikatu beharko dituzula jakiak.
4. Hozkadak tratatzeko pomada edo gelak badaude. Mina desagertzen ez bada, deituiguzu. Seguruenik, protesia doitu egin beharko da oraindik.
5. Badaude protesiari finko eusten laguntzen dioten produktuak ere. Halakorik behar duzula uste baldin baduzu, lagunduko dizugu bat aukeratzen.

C.- Protesia jartzeko eta kentzeko argibideak

1. Protesia beti bustita eta hatzekin lagunduz jarri behar da ahoan.
2. Ez egin hozkarik **inoiz** protesiari ahoan finka dadin. Protesia haustea eta ahoan zauriak egitea ekidingo duzu horrela.
3. Kentzeko, egin tira protesiari kanporantz, bi aldeetatik, hatzekin lagunduz.
4. Behin kanpoan, garbitu eta sikatu ostean, gorde ezazu eman zaizun ontzian. Ontzi hori horretarako bakarrik erabili behar da.
5. Kontuz garbitzerakoan. Protesia erotzen baldin bazaizu, hautsi egin daiteke.

D.-Garbiketa eta zainketa

1. Jatorduen ostean, bai protesia eta bai ahoa garbitu beharko dituzu.
2. Egunean behin gutxienez, eskuil berezi batekin garbitu behar dira protesiak. Azazkaletarako erabiltzen den eskuil bat ere erabil

dezakezu zeregin horretarako. Eskuetarako xaboia erabiltzea gomendatzen dizugu, hortzetako pastaren ordez; era horretan, protesiaren gainean ager daitezkeen lertzoa eta tintzioak gutxituko dituzu.

3. Oheratzen zarenean, kendu protesiak, hortz-oiak deskantsua behar baitu.
4. Protesiaren gainean agertzen diren lertzoa eta tintzioak kendu ezin baldin badituzu, deituiguzu, eta geuk garbitu eta desinfektatuko dizugu. Urtean behin behintzat komenigarria da.

E.- Azterketak eta gertaerak:

1. Garrantzitsua da hortz-oietako zauriak zaintzea. Protesi azpian sortzen diren zauriek 4-5 egunean desagertu behar lukete. Hala ez bada edo okerragora baldin badoaz, deituiguzu berehala.
2. Arazorik baldin baduzu, ez zaitez saiatu zeu konpontzen. Deituiguzu, eta guk lagunduko dizugu.
3. Denboraren poderioz, hortz-oiak aldaketak jasaten ditu. Ondorioz, protesiak doikuntzak behar izaten ditu. Beharrezkoa da 6 hilabetean behin dentistak ikustea eta behar dituen ukituak ematea.

3.8 PROTESI KENGARRI PARTZIALAREN MANTENURAKO ARGIBIDE ETA GOMENDIOAK

.....(izena):

protesi kengarri bat egin berri dizugu. Tratamendu honekin, falta diren hortzak eta denborarekin atrofiatzen doan hezurraren egitura ordezkatu nahi ditugu. Estetika, murtxikatze-prozesua eta hitz egiteko era hobetuko dizkizu protesiak. Zeure hortz-haginetan eta ahoko ehun bigunetan izango du heldulekua aparatuak; hori dela eta, desberdintasunak sumatuko dituzu, hortz-hagin naturalekin alderatuz gero, murtxikadura-prozesuan.

ZAILTASUNAK

Denborarekin, hortz-hagin naturalak mugitu egin daitezke, eta hezur-maila aldatzea ere ohikoa izaten da. Ondorioz, odontologoak sarri errebisatu beharko du protesia, eta beharrezko doikuntzak egin beharko dizkio. Gainera, beste protesi bat egitea erabaki dezake momentu zehatz batean.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu

Protesi kengarri partzialek indarrak transmititzen dizkie hortz-hagin, hortz-oi eta hezurrei. Horregatik, ohitze-prozesua garrantzitsua da, eta xehetasun txiki guztiak hartu behar dira kontuan. Aste batzuen buruan, ziurrenik ez zara ohartuko jarria duzun ala ez, baina pazientzia izan behar duzu. Behar diren ukitu eta zuzenketa guztiak egingo zaizkizu eroso zauden arte.

1. Gorputz arrotz bat izan daiteke hasieran. Normalean, aste batzuen buruan desagertzen da sentsazio hori.
2. Lehen asteetan, listua sortzea estimula dezake. Pixkanaka, normaltasunera itzuli ohi da berriro.
3. Dastamena mugatu dezake, batik bat lehenengo asteetan.

4. Arraro senti zaitezke hitz egiterakoan. Hasieran, arazoak izango dituzu hots batzuk ahoskatzeko, eta entrenamendua beharko duzu.
5. Lehen asteetan, masailei eta mihiari hozka egingo diezu seguruenik, egituren espazio-banaketa aldatu egin baita. Arazorik gabe ohituko zara.
6. Protesiak, gehienetan, hortz-oia minberatzen du zenbait puntutan, batik bat ertzen inguruan. Mina desagertzen ez bada edo gehiagora baldin badoa, deituiguzu. Seguruenik, ukituren bat beharko du oraindik protesiak.
7. Denborarekin desagertzen den arren, presioa sentitzen da sarritan hortzen gainean edota hortz-oian, batik bat hozka egiterakoan.

B.- Zer egin:

1. Lehenengo egunetan, saia zaitez kontuz murtxikatzen, masailean eta mihian hozkadak ekiditeko eta hortz-oia ez gehiegi minberatzeko.
2. Arrazoi bera dela eta, saia zaitez janari bigunak jaten hasieran. Apurka-apurka hasiko zara gogorragoekin.
3. Hozkadak tratatzeko pomada edo gelak badaude. Mina desagertzen ez bada, deituiguzu. Seguruenik, ukituren bat beharko du protesiak oraindik.
4. Min handia sumatzen baldin baduzu jatean, deituiguzu, protesiak doikuntzaren bat beharko du eta.

C.- Protesia jartzeko eta kentzeko argibideak

Ohitura- eta pazientzia-kontua da protesia kentzeko eta jartzeko abilezia.

1. Hatzekin lagunduz jarri behar da ahoan. Jarri kakoak dagozkien hortz-haginen parean, eta indar apur bat eginez bultzatu beharko

dituzu, protesia bere lekura joan dadin. Sarritan, klik bat entzun ohi da momentu horretan.

Inoiz ez bultzatu indar gehiegi eginez.

Inoiz ez hozka egin protesiari ahoan finka dadin. Protesia haustea eta ahoko zauriak egitea ekidingo duzu horrela.

2. Kentzeko, hatzak kakoen gainean edo protesiaren ertzetan jarriz, egin tira protesiari kanporantz, bi aldeetatik, hatzekin lagunduz. Azazkalak kontu handiz erabili maniobra horretan.

D.-Garbiketa eta zainketa

1. Jatorduen ostean, bai protesia eta bai ahoa garbitu beharko dituzu.
2. Egunean behin, gutxienez, eskuil berezi batekin garbitu behar da protesia. Azazkaletarako erabiltzen den eskuil bat ere erabil dezakezu zeregin horretarako. Eskuetarako xaboia erabiltzea gomendatzen dizugu, hortzetako pastaren ordez; era horretan, protesiaren gainean agertzen diren lertzoa eta tintzioak gutxituko dituzu.
3. Bereziki garrantzitsua da zati metalikoa garbitzea, batik bat hortzen kontra geratzen diren zatiak. Distiratsu dauden arte garbitu behar dira. Alkohola erabil dezakezu, nahi izanez gero. Plaka bakterianoa ondo kentzen ez baldin bada, arrisku handia dago hortz-hagin naturaletan txantxarra izateko.
4. Oheratzen zarenean, kendu protesiak, hortz-oiak deskantsua behar baitu.
5. Behin kanpoan, garbitu eta sikatu ostean, gorde ezazu protesia eman zaizun ontzian. Era horretan, kolpe eta deformazioak ekidingo dituzu. Ontzi hori horretarako bakarrik erabili behar da.
6. Gogoratu garrantzitsua dela haria erabiltzea hortz-haginen tarteak garbitzeko.
7. Gomendagarria da masajeak ematea hortz-oietan, odolaren zirkulazioa hobetu eta egituraren aldaketak murrizteko.

8. Protesiaren gainean agertzen diren lertzoa eta tintzioak kendu ezin baldin badituzu, deituiguzu, eta geuk garbitu eta desinfektatuko ditugu. Urtean behin behintzat komenigarria da.

E.- Azterketak eta gertaerak:

1. Garrantzitsua da hortz-oietako zauriak zaintzea. Protesi azpian sortzen diren zauriek 4-5 egunetan desagertu behar lukete. Hala ez bada edo okerragora baldin badoaz, deituiguzu berehala.
2. Arazorik baldin baduzu, ez zaitez saiatu zeu konpontzen. Deituiguzu, eta geuk lagunduko dizugu.
3. Denboraren poderioz, hortz-oiak aldaketak jasaten ditu. Ondorioz, protesiak doikuntzak behar izaten ditu. Beharrezkoa da 6 hilabetean behin dentistak ikustea eta behar dituen ukituak ematea.

3.9 PROTESI FINKOAREN MANTENURAKO ARGIBIDE ETA GOMENDIOAK

……..(izena):

protesi finko bat egin berri dizugu. Tratamendu honekin, falta zaizkizun hortz-haginak ordezkatu nahi ditugu. Estetika, murtxikatze-prozesua eta hitz egiteko era hobetuko dizkizu protesiak. Aurrez forma eman diegun hortz-haginen gainean zementatua dago.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu

1. Gorputz arrotz bat izan daiteke hasieran zuretzat. Normalean, aste batzuen buruan desagertzen da sentsazio hori.
2. Lehen asteetan, listua sortzea estimula dezake. Pixkanaka, normaltasunera itzuliko da berriro.
3. Arraro senti zaitezke hitz egiterakoan. Hasieran, arazoak izango dituzu hots batzuk ahoskatzeko, eta entrenamendua beharko duzu.
4. Lehen asteetan, masailei eta mihiari hozka egingo diezu seguruenik, egituren espazio-banaketa aldatu egin baita. Arazorik gabe ohituko zara.
5. Denborarekin desagertzen den arren, presioa sentituko duzu, sarritan, hortzen gainean edota hortz-oian, batik bat hozka egiterakoan.
6. Hozkia sentituko duzu hotzarekin edo beroarekin. Normalean, egun batzuen buruan desagertzen da. Deserotasun hori mantendu edota okerragora baldin badoa, deituiguzu; balikete beste tratamenduren bat behar izatea.

B.- <u>Zer egin:</u>

1. Lehenengo egunetan, saia zaitez kontuz murtxikatzen, masailean eta mihian hozkadak ekiditeko eta hortz-oia ez gehiegi minberatzeko.
2. Arrazoi bera dela eta, saia zaitez janari bigunak jaten hasieran. Apurka-apurka hasiko zara gogorragoekin.
3. Hozkadak tratatzeko pomada edo gelak badaude. Mina desagertzen ez bada, deituiguzu. Seguruenik, ukituren bat beharko du protesiak oraindik.
4. Min handia sumatzen baldin baduzu jatean, deituiguzu, protesiak doikuntzaren bat beharko du eta.

D.-<u>Garbiketa eta zainketa</u>

1. Jatorduen ostean, bai protesia eta bai ahoa garbitu beharko dituzu.
2. Hortz-haginak garbitzeko teknika bera erabiliz garbituko duzu protesia ere. 45º-ko angelu batean jarriko duzu eskuila, hortz-oia eta hortz-hagina bereizten diren puntuan. Eskumuturra mugituz, beherantz pasatuko duzu eskuila goiko hortzetan; beheko hortzetan, aldiz, gorantz.
3. Bereziki garrantzitsua da hortz-oiaren eta protesiaren arteko muga garbi mantentzea plaka bakterianoa ondo kentzen ez baldin bada, arrisku haundia baitago txantxarra sortzeko eta hortz-oia handitzeko.
4. Gogoratu garrantzitsua dela haria erabiltzea hortz-haginen eta protesi finkoaren arteko tarteak garbitzeko.
5. Zubi bat izanez gero, hortz-haginen bat falta denean, hortz-oian finkatzen da protesiaren zati bat. Hortz-oiaren eta portzelanaren artean geratzen diren hondarrak kendu beharra dago, haria orratz moduko batekin pasaraziz edo ura presioan erabiliz.

E.- Azterketak eta gertaerak:

1. Garrantzitsua da hortz-oietako zauriak zaintzea. Protesi azpian sortzen diren zauriek 4-5 egunean desagertu behar lukete. Hala ez bada edo okerragora baldin badoaz, deituiguzu berehala.
2. Arazorik baldin baduzu, ez zaitez saiatu zeu konpontzen. Deituiguzu, eta geuk lagunduko dizugu.
3. Beharrezkoa da 6 hilabetean behin dentistak ikustea, hortz-haginak eta ehun bigunak osasuntsu daudela bermatzeko.

3.10 INPLANTEEN GAINEKO PROTESI FINKOAREN MANTENURAKO ARGIBIDE ETA GOMENDIOAK

……(izena):

protesi finko bat egin berri dizugu inplanteen gainean. Inplanteak jarri dizkizugu falta zaizkizun hortz-haginak ordezkatzeko. Estetika, murtxikatze-prozesua eta hitz egiteko era hobetuko dizkizu haien gainean doan protesiak.

ZAILTASUNAK

Denborarekin, hortz-hagin naturalak mugitu egin daitezke, eta hezur-maila aldatzea ere ohikoa izaten da. Inplanteak hutsuneetan jarri dira, eta zeure hortz naturalen ahalik eta antzekoen egin dugu protesia. Falta zaizkizun hortzak galtzearen ondorioz, aldaketak izan dira hezurrean eta ehun bigunetan, eta, horregatik, ez dira inoiz izango benetako hortz-haginak bezalakoak.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Gorputz arrotz bat izan daiteke hasieran. Normalean, aste batzuen buruan desagertzen da sentsazio hori.
2. Lehen asteetan, listua sortzea estimula dezake. Pixkanaka, normaltasunera itzuli ohi da berriro.
3. Arraro sentituko zara hitz egitean. Hasieran, hots batzuk ahoskatzerakoan arazoak eduki ditzakezunez, entrenamendua beharko duzu.
4. Lehen asteetan, masailei eta mihiari hozka egingo diezu seguruenik, egituren espazio-banaketa aldatu egin baita. Arazorik gabe ohituko zara.
5. Denborarekin desagertzen den arren, presioa sentituko duzu, sarritan, hortzen gainean edota hortz-oian, batik bat hozka egiterakoan.

6. Ohikoa da protesi mota hau askatzen joatea, batik bat hasieran. Hala gertatzen bazaizu, deituiguzu segituan. Momentu batean jarriko dugu berriro bere lekuan.

B.- Zer egin:

1. Lehenengo egunetan, saia zaitez kontuz murtxikatzen, masailean eta mihian hozkadak ekiditeko eta hortz-oia ez gehiegi minberatzeko.
2. Hozkadak tratatzeko pomada edo gelak badaude. Mina desagertzen ez bada, deituiguzu. Seguruenik, ukituren bat beharko du protesiak oraindik.
3. Inplanteekin, murtxikatzeko sentsazioa desberdina da. Ez egin hortz-haginekin egingo ez zenukeen indarrik, arriskuan jar baitezakezu protesia.
4. Min handia sentitzen baldin baduzu jatean, deituiguzu, protesiak doikuntzaren bat beharko du eta.

D.-Garbiketa eta zainketa

1. Jatorduen ostean hortz-haginak garbitzeko teknika bera erabiliz garbituko duzu protesia ere.
2. Bereziki garrantzitsua da hortz-oiaren eta protesiaren arteko muga garbi mantentzea. Garrantzitsua, eta, batzuetan, ez oso erraza. Hortz-hagin naturalen galerak hezur-gabezia sortzen du. Horregatik, batzuetan, protesi finkoak ezin ditu tarte guztiak ondo itxi, eta janaria gera daiteke tarte horietan. Gomendatzen dizugu ura presioan, superfloss haria eta hortz-tarteetarako eskuil txikiak erabiltzea.
3. Gogoratu garrantzitsua dela haria erabiltzea hortz-hagin naturalen eta protesi finkoaren arteko tarteak garbitzeko.

E.- Azterketak eta gertaerak:

1. Garrantzitsua da hortz-oietako zauriak zaintzea. Protesi azpian sortzen diren 4-5 egunean desagertu behar lukete. Hala ez bada edo okerragora baldin badoaz, deituiguzu berehala.
2. Protesi finkoa askatzen ari dela sentitzen baduzu, deitu berehala. Dena ondo dagoela bermatzeko erarik onena da.
3. Arazorik baldin baduzu, ez zaitez saiatu zeu konpontzen. Deituiguzu, eta geuk lagunduko dizugu.
4. Beharrezkoa da 6 hilabetean behin dentistak ikustea, hortz-haginak eta ehun bigunak osasuntsu daudela bermatzeko.

3.11 HORTZEN ZURIKERATAKO FERULEN MANTENURAKO ARGIBIDE ETA GOMENDIOAK

……..(izena):

zuriketarako ferula egokitu bat egin berri dizugu. Zure hortz-haginen formaren erregistro perfektua erakusten dute, haien gainean behar den bezala finkatzeko eta gel zuritzailea hortzen gainean mantentzeko.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu

1. Lehen asteetan, listua sortzea estimula dezake. Ordu batzuen buruan gutxituko da, eta egun batzuk pasatu eta gero ohituko zara.
2. Arraro sentituko zara hitz egitean. Hasieran, arazoak izan ditzakezu hots batzuk ahoskatzerakoan. Horregatik, saiatzen gara zuriketa-saioa lo-orduetan edo hitz egin beharrik ez duzun momentuetan egiten.

B- Ferula jartzeko eta kentzeko argibideak

1. Ferula jarri baino lehen, hortz-haginak ondo garbitu behar dituzu. Carbamida peroxidoa (zuritzailea) duen pasta erabiliz gero, hobeto.
2. Tarteetan hortzetako haria pasatuz gero, hobeto helduko da gel zuritzailea puntu horietara.
3. Ez erabili klorhexidina duen kolutoriorik, ez eta plaka errebelatzailerik ere, hortzak zikindu baititzakete.
4. Behin hortz-haginak garbituta, jar ezazu ferulan gel tanta bat hortz bakoitzaren aztarnaren parean, kontsultan azaldu dizugun bezala. Finkatu ferula ahoan, eta, gel-hondarrik geratu baldin bazaizu ferulatik kanpora, garbitu ezazu.

5. Utzi gelari efektua egiten, agindu zaizun denboran ferula jarrita utzita.
6. Denbora agortzen denean, kendu ferula, kontu handiz bi aldeetatik batera tiratuz, apurtu gabe. Ondo garbitu ahoa, ur epelarekin. Hala, sentsibilitatea ohikoa izaten denez, deserosotasuna ekidingo duzu.
7. Garbitu ferula ondo; sikatu, eta gorde bere kutxan, berriro erabili arte.

C.- Zainketa

1. GARRANTZITSUA. Ez jan ezer ferulak jarrita dauzkazularik. Ez eduki esandakoa baino denbora gehiagoan jarrita.
2. Zure osasunerako, ez da komeni erretzea, baina bereziki kaltegarria da zuriketarako.
3. Zuriketa-garaian, alkohola ere kaltegarria izan daiteke hortz-haginetarako, zikindu egin baitaitezke.
4. Era berean, hobe da jaki hauek ekiditea: kafea, tea, kola duten edariak, orburuak, espinakak eta azafrana duten jakiak. Izan ere, zuriketaren efektua gutxitu eta tintzioak eragin ditzakete.
5. KONTUZ! Ehun bigunetan zauriak eragin ditzake ferulak, batik bat kontu handiz kendu eta jartzen ez bada. Zauria ferularekin egin ez baduzu, 4-5 egun pasatu eta gero desagertu ez bada edo min ematen badizu, deituiguzu segituan.
6. Tratamenduak dirauen bitartean, hortz-haginen sentsibilitatea areagotu daiteke. Hala bada, utz itzazu egun bateko edo bi eguneko tarteak saio batetik bestera. Ekidin itzazu edari hotzak,

   eta garbitu hortz-haginak ur epelarekin. Deserosotasuna desagertzen ez bada edo okerragora baldin badoa, deituiguzu.

D.- Garbiketa

1. Ferulak garbitu ondoren, sikatu, eta sar itzazu bere kutxan.
2. Denbora batez gordeta egon baldin badira, berriro erabili baino lehen, garbitu itzazu eskuilarekin, hondarrak ondo kentzeko. Barruan lizuna sortzen hasia bada, jar itzazu ferulak uretan, protesiak garbitzeko erabiltzen den produktuarekin, pare bat orduz.

E.-Azterketak eta gertaerak:

1. Bisita bat bi astean behin, tratamenduan zauden bitartean. Emaitzak pare bat astera sumatuko dituzu.
2. Kasuaren arabera, hilabete batetik lau hilabetera iraun dezake tratamenduak.
3. Behin emaitza egokia lortu eta gero, komeni da 6 hilabetean behin berrikustea, zuriketaren mantenua ebaluatzeko. Baliteke mantenu-plan berri bat behar izatea.
4. Denbora aurrera doan heinean, hortz-haginak atzera berriz iluntzen ari direla sumatuko duzu beharbada. Prozesua errepikatu egin beharko da, orduan.

OHARRA: *batzuetan, gel zuritzaileak mihia belzten du. Hala bada, utzi kolutorioa erabiltzeari eta deituiguzu segituan.*

Arazorik baduzu, ez zaitez saiatu zeu konpontzen. Eska ezazu txanda. Ez utzi zure dentista ez den beste inori ferula ukitzen.

3.12. DESKARGARAKO FERULA EDO OKLUSIO DESPROGRAMATZAILEA ERABILTZEKO, ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ARGIBIDEAK

……(Izena):

Oklusio desprogramatzaile bat edo deskargarako ferula bat egin berri dizugu. Plastiko gogor batez egina dago, eta haren helburua hortz-haginak estutzetik datorren patologien diagnosia eta tratamendua egitea da (adibidez, gainkarga muskularra). Horrek ez du ekidingo zuk hortz-haginak estutzea, baina, ondo erabiliz gero, min muskularrak arintzea eta hortz-haginen higadura gutxitzea lor daiteke.

A.- Beharbada, sintoma hauek izango dituzu:

1. Gorputz arrotz bat izan daiteke hasieran. Normalean, aste batzuen buruan desagertuko da sentsazio hori.
2. Lehen asteetan, listua sortzea estimula dezake. Pixkanaka, normaltasunera itzuliko da berriro.
3. Arraro sentituko zara hitz egitean. Hasieran, arazoak izango dituzu hots batzuk ahoskatzerakoan, eta entrenamendua beharko duzu.
4. Baliteke deseroso sentitzea ferula finkatzen den lekuan, batik bat ertzetan. Molestia desagertzen ez baldin bada edota gehiagora baldin badoa, deituiguzu.

B.-Garbiketa eta zainketa

1. Ferula garbi mantendu behar da. Garbitu ezazu eskuila batekin eta xaboiarekin, usain eta zapore txarra ekiditeko.
2. Astean behin, jar ezazu uretan, pare bat orduz, protesiak garbitzeko erabiltzen den produktuarekin. Berriro jarri baino lehen, pasatu lehendabizi eskuila xaboiarekin

C.- Ferula jartzeko eta kentzeko argibideak

1. Ferula bustita jarri beharko duzu beti, hatzekin bere lekuan finkatuz.
2. Hozka egin baino lehen, ziurtatu beti bere lekuan dagoela, haustura edo ehunen zauriak ekiditeko.
3. Kentzerakoan, egin tira bi aldeetatik batera, hatzekin. Behin kanpoan, garbitu ezazu.

D.- Azterketak eta gertaerak:

1. Ferulak ukituak eta konponketak beharko ditu aldizka.
2. 6 hilabetean behin gutxienez azterketara joan behar zenuke. Eraman beti ferula, ikuskatu dezaten.
3. Zenbait egunetan ferularik erabili ez baldin baduzu, min eman diezazuke jartzerakoan. Ez sartu indarka. Deituiguzu, eta geuk lagunduko dizugu.

KONTUZ!! Deituiguzu hortz-oian edo hortz-haginetan mina duzun guztietan, eta eskatu txanda. Mina normala izan daiteke hasieran. Behin 4-5 egun pasatu eta gero desagertzen ez badira edo okerragora baldin badoaz, deituiguzu berehala.

Arazoren bat baldin baduzu, ez zaitez saiatu zeure kasa konpontzen. Eskatu txanda. Ez utzi ferula ukitzen zure dentista ez den inori.

4. Bilbliografia

1. WHO. Oral Health Surveys. *Basic methods*. World Health Organitation. 1997. 4. ed.

2. Ceccoti E. et al. *El diagnóstico en Clínica Estomatológica*. Buenos Aires. Editorial Médica Panamericana. 2007. 1. ed.

3. *Guías Clínicas de las Terapéuticas en Odontología Integrada para Adultos*. Del Rio J. Editorial Lerko Print S.A. Madril. 2006.